

CERMIN 2024 elkarte mugimenduaren manifestua

Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna

“NAHI DUGUN ETORKIZUNA. ELKARREKIN GEHIAGO GARA”

Gaur, Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko Eguna da, eta desgaitasuna dugun emakumeok eta neskatook aurten berriro ere salatu nahi dugu herritar garen aldetik aurre egin beharreko egoera, sistematikoki ikusezin bihurtzen eta baztertzen gaituztelako.

Azken urteotan, aurrerapen garrantzitsuak egin dira gure eskubideetan, eta gizartea gero eta kontzientziatuagoa dago gure egoeraren gainean. Dena dela, oraindik ere bada zer egin handia.

Desgaitasuna dugun emakumeok eta neskatook askotariko bazterkeriari egin behar diogu aurre: emakumeak izateagatik eta desgaitasuna izateagatik. Bazterkeria are handiagoa da, beste faktore batzuen interseksionalitateak eragiten badu. Faktore horien artean daude gure adina, zer desgaitasun mota dugun, gure jatorri kulturala, gure sexu-joera, landatasuna, edota pobrezia egoerak, aldagai askoren artean.

Funtsezkoa da genero-ikuspegia txertatzea desgaitasunaren esparruko politika publikoetan; eta funtsezkoa ere, emakumeen eskubideen aldeko politiketan desgaitasunaren ikuspegia txertatzea.

Horrela bakarrik eraikitzen ahalko baitugu jendarte egiazki “anticapacitista”, inklusiboa, feminista, giza eskubideen betekizuna bermatuko duena eta desgaitasuna dugun emakumeon eta neskatooen oinarrizko askatasunak errespetatuko dituen.

Hori dela eta, honakoa GALDATZEN DUGU:

- Berma dadila **hezkontza** inklusiboa eta kalitatekoa. Izan ditzala eskura baliabideak, tresnak, metodologiak eta egokiro prestatutako profesionalak desgaitasuna duten emakumeen eta neskatooen beharrei erantzuteko. Dibertsitatearendako arretak indartu behar du bai aurrera egin dezagula, bai mailaz

igo gaitzela, prestakuntza-etapa guztietan zehar, behar diren laguntzak jasorik.

- **Enplegu** arloko politika publikoek aintzat har dezatela desgaitasuna duten emakumeen berezko egoera, bai eta haien amen eta zaintzaileen egoera ere. Kontuan har daitezela lan merkatuan sartzeko dituzten zailtasun handiagoak, gure enpleguaren prekarizazio handiagoa, eta soldatetan dugun arrakala handiagoa.
- Berma dadila desgaitasuna duten emakumeen sarbidea **osasan** zerbitzuetan, baita sexu eta ugalketako osasun zerbitzuetan ere; eta errespeta dadila geure gorputzen gainean erabakitzeko dugun eskubidea.
- Behar diren formulak egituratu daitezela lana eta familia bateragarri egitea ahalbidetzeko, autozaintzako lanak barne. Pertsona guztiek har ditzatela **zaintzak** bere gain, ikuspegi komunitarioa ere txertaturik.
- Utz diezagutela erabakitzen nola, non eta norekin bizi nahi dugun. Gure **bizitza-proiektuak geure kasa** garatu nahi ditugu eta, horretarako, **pertsonen autonomia** eta mendekotasunarekiko arreta sustatzeko politika eraginkorrak behar ditugu.
- Errespeta daitezela gure **iritziak, lehenespenak** eta **nahiak** bizitza aro guztietan: gure haurtzaroan, gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan.
- Susta dadila desgaitasuna duten emakumeen eta neskatoen ahalduntzea, **lidergoa** eta **parte-hartzea** politikagintzan. Aktiboki parte hartu nahi dugu erabakietan, eta hizpidea eta botoa izan nahi ditugu politika publikoen diseinuan.

- Berriazko ekintzak susta daitezela, desgaitasuna dugun emakumeok eta neskatok nahiz desgaitasuna duten pertsonen amek eta zaintzaileek aurre egin beharreko **pobrezia murrizteko**. Konpentsatu beharra dago aurrean dugun bidegabekeria ekonomiko konparatiboa, gastu handiagoak eragiten dituelako, bai eta diru-sarrerak sortzeko aukera txikiagoak ere.
- Zeharkakotasunez bete dadila **Irisgarritasun Unibertsalari** buruzko araudia bizitzaren esparru guztietan, gizartea erabat izan dadin inklusiboa, eta gainerako herritarren baldintza berdinetan parte hartu ahal izan dezagun.

Horratx nahi dugun etorkizuna eta horren alde ere jarraituko dugu borrokan.

Elkarrekin, gehiago gara!